



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Jose M. Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
Javier Bereau Miquelarena
Maria Izaskun Altxu Ariztegi

2017ko urriaren 25ean, 07:30ak direnean, Ohizkanpoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. HIRIGINTZA PLANGINTZA EGITEKO LAGUNTZA KONTRATUA.

2017ko uztailaren 10eko Osoko Bilkuran erabaki zen pleguak onestea Iturengo Plan Orokorra egiteko laguntza kontratua esleitzeko, komunitate publizitaterik gabeko eta ohiko izapideko prozedura negoziatuaren bitartez. Lanen aurrekontua finkatu zen 41.322,31 eurotan (gehi BEZa).

5 arkitekto hirigile gonbidatuak izan ziren proposamenak aurkeztera eta, 3 talde hauekin eraman dira negoziazioak azkenean: A.A.E. eta J.J.E.I. (Equal architectos); M.U.F. eta F.J.C.S.M. (Chocarro y Urmeneta S.L.P.); C.R.A.

Idazkariak adierazi ditu Kontratazio-mahaiak egindako bileren aktak eta mahaikide aholkulari teknikoen txostenak. Azkeneko bileran, 2017ko urriaren 23an, erabaki zen kontratua nori esleitu proposatzea: M.U.F. eta F.J.C.S.M.i, eskaintza onuragarriena izan zelako (88,07 puntu lortu zituen).

Jarraian, aurrekinak ikusirik eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 70. eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontuan izanda, aho batez erabakitzen da:

1. Iturengo Plan Orokorra egiteko laguntza kontratua esleitzea M.U.F. eta F.J.C.S.M.i (Chocarro y Urmeneta S.L.P.), B31869472 IFK, 41.000 eurotan (gehi BEZa).

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu zituzten arkitektoei eta Nafarroako Gobernuari.

4. Esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturaleko epean (Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 93.2 artikulua).

Eta bertzerik ezean, 08:10 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.